# OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA
# ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

Casares Kultur Etxean, 2010eko martxoaren 4an, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:30etan, ondoko partaide hauekin: Antxon Alfaro, Rafa Altube, Lazaro Altuna, Kepa Amondarain, Blanca Andueza, Angel Calvo, Javier Cantera, José Mari Cendoya (Mari Paz Sainz Ubarrechenaren izenean), Iñigo Landa, Pili Lázaro, Josetxo Mangas, Maribel Manzano, Juan Carlos Mora, Migul Angel Padrones, Tomas Paulis, Agustin Rodríguez, Charo Roquero, Jon Serrano, eta Josu Tellabide. Elena Arrietak eta Javi Castrok ezin etortzea justifikatu dute.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 07:30 de la tarde del día 4 de marzo de 2010, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de Antxon Alfaro, Rafa Altube, Lazaro Altuna, Kepa Amondarain, Blanca Andueza, Ángel Calvo, Javier Cantera, José Mari Cendoya (en representación de Mari Paz Sainz Ubarrechena), Iñigo Landa, Pili Lázaro, Josetxo Mangas, Maribel Manzano, Juan Carlos Mora, Miguel Ángel Padrones, Tomás Paulis, Agustín Rodríguez, Charo Roquero, Jon Serrano, y Josu Tellabide. Elena Arrieta y Javi Castro justifican su ausencia.*

## 1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpena

2009ko martxoaren 25eko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartua izan zen.

## *1. Aprobación del acta de la Asamblea anterior*

*Se aprobó el acta de la Asamblea General Ordinaria celebrada el 25 de marzo de 2009*

## 2. 2009. urteko memoriaren onarpena

Idazkariak 2009 urteko memoria aurkeztu zuen:

## *2. Aprobación de la memoria del año 2009*

*El secretario presentó la memoria del año 2009:*

### 1.1 Altzanet

Aurreko urtetan egindako jarduerekin jarraitu da. Bisitarien kopurua jaitsi egin da, baina orri gehiago ikusi dira. Iaz bisitak 71.525 izan dira eta 233.196 orri ikusi dira. Egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:

- AHMren web gunearen edukiak gehitu dira. “Ganbara” Bildumaren atal digitala osatu da, jasota dauden objektuen fitxa guztiak jarriz. Halaber, “Altza, hautsa kenduz” bildumaren azken liburuan argitaratu diren artikulu guztiak era digitalean eskaini dira.
- Urtean zehar Altzan antolatu diren ekintzen informazioa era digitalean eskaini da: web gunearen edota posta elektronikoaren bidez.
- “Altza prentsan” atalean egunkarietan Altzaren gainean azaltzen diren berriak egunero jaso dira.
- Helbide elektronikoak, altza.net domeinuarekin, dohainik banatzen jarraitu da.
- Bi posta zerrendak kudeatu dira: altzanet@altza.net eta altza21@altza.net.
- Joan den urtean zehar elkartearen komunikazioetan SMS mezuen bidalketa web guneen bidez jarraitu da erabiltzen.
- Foroaren kudeaketa egin da. Atal honetan Altzako futbol-salaren txapelketaren gainean iritziak emateko eta elkar trukatzeko aukera egon da. Denboraldi honetan futbol-salaren txapelketak jarraipenik ez izan arren, egokia ikusi da momentuz foroa mantentzea.

Webgunearen berrantolaketa sakona premiazkoa ikusten da, bai estetikoki baita ere edukietan. Honengatik hasi gara lanean elkartearen 25. urteurrenean aldaketa gauzatu dadin.

### 1.1 Altzanet

Se ha continuando con la dinámica de años anteriores. El número de visitantes ha descendido, pero han aumentado el número de páginas visitadas. Durante el año 2009 las visitas han sido 71.525, visualizando 233.196 páginas. Las principales actividades llevadas a cabo han sido:

- Se han ampliado los contenidos de la página web de AHM. Durante el pasado año se completaron todas las fichas de los diferentes objetos de la Colección “Ganbara”. Así mismo, se ha ofrecido en formato digital el último número de la publicación “Altza, hautsa kenduz”.
- Se ha ofrecido información en formato digital de las actividades organizas en Altza, a través de la página web y del correo electrónico.
- En la sección “Altza en la prensa” se han ido recogiendo diariamente las noticias que sobre Altza se publican.
- Se ha continuado extendiendo de forma gratuita el uso del dominio altza.net en el correo electrónico.
- Se han gestionado dos listas de correo: altzanet@altza.net y altza2l @altza.net.
- Se ha continuado con el uso de mensajes SMS a través de web en las comunicaciones de la asociación.
- Se ha seguido gestionado el foro como espacio de intercambio de opiniones sobre el torneo de futbol-sala de Altza. Aunque este torneo no ha tenido continuidad durante la presente temporada, se ha considerado adecuado continuar con el foro.

Con el objetivo de mejorar e introducir nuevos contenidos vemos la necesidad de una remodelación profunda de la página web y sus contenidos, que quisiéramos abordar de cara al 25 aniversario de la asociación.




**Informe:** Resumen - altza.net
**Período de fechas:** 01/01/2009 - 12/31/2009
**Exportar:**

| | |
|---|---|
| Total de sesiones | 71,525.00 |
| Total de Páginas vistas | 233,196.00 |
| Total de accesos | 822,836.00 |
| Total de Bytes transferidos | 26.60 GB |
| Promedio de sesiones por día | 195.96 |
| Promedio de Páginas vistas por día | 638.89 |
| Promedio de accesos por día | 2,254.35 |
| Promedio de Bytes transferidos por día | 74.63 MB |
| Promedio de Páginas vistas por sesión | 3.26 |
| Promedio de accesos por sesión | 11.50 |
| Promedio de Bytes por sesión | 389.97 KB |
| Duración promedio de las sesiones | 00:15:56 |

## 1.2 Altzari buruzko dokumentazio zentroa

**Hemeroteka**

Jarraitu dugu, aurreko urteetan bezala, Altzari buruz egunerok prentsan argitaratu dena biltzen. Notiziak egunkari hauetatik bildu ditugu: Irutxuloko Hitza, Diario Vasco, Noticias de Guipúzcoa, Gara, Berria, eta Deia. Lan honetaz Antxon Alfaro arduratu da.

**Fototeka**

Aurten bere argazkiak utzi dizkigutena hauek izan dira: Ignacio Gaiztarro, Antxotarrok Historia Mintegia, Zigor Etxeburua, Miren Iruretagoiena, Elena Arrieta, Landa Jaka familia, Isabel de los Mozos, Angel Orbegozo eta Begoña, Isabel Matxinandiarena, Rafa Altube, Pako Muñoa, Luis Mari Ralla, M. Carmen Vilar, Josetxo Olaziregi, Elisa Garallalde, José Ignacio Irigoien, Manuel Otaola, Fernando Rodriguez. Arduraduna Jon Serrano izan da.

Dokumentu guzti horiek eta bildutako beste asko (altzatarrek utziak, artxiboetan aurkitutakoak eta abar) katalogatuak, ordenatuak eta ongi zainduak egotea izango litzateke egoerarik hoberena, baina gure elkarteak dituen baliabide mugatuak direla eta ez dugu aukerarik izan lan horri nahi genuen neurrian ekiteko. Hala ere 1.226 dokumentu katalogatu ditugu aurten, inoiz baino gehiago. Hori ahal izan da egin dokumentu digitalekin aritu garelako lanean, euskarri fisikoak bigarren maila batean utziz.

Katalogazioarekin batera, digitalizazioaren arloan ere aurrerapausu handia eman dugu, ia %90 digitalzatuta egotea lortu dugulako. Hau oso garrantzitsua da hedapenari begira. Iaz Dokumentazio Zentroaren fondo dokumentala www.altza.info web orrian eskaintzen hasi ginen eta gure nahi handia da ahal diren dokumentu gehienak bertan kontsultagarri egotea da.

Une honetan katalogatuak eta digitalizatuak (parentesi artean)

## 1.2 Centro de documentación sobre Altza

**Hemeroteca**

Hemos continuado como en años anteriores reuniendo las noticias publicadas en la prensa local referentes a Altza en los siguientes medios: Irutxuloko Hitza, Diario Vasco, Noticias de Guipúzcoa, Gara, Berria, y Deia. El responsable ha sido Antxon Alfaro.

**Fototeca**

Las personas con las que hemos contactado en este apartado son: Ignacio Gaiztarro, Antxotarrok Historia Mintegia, Zigor Etxeburua, Miren Iruretagoiena, Elena Arrieta, Landa Jaka familia, Isabel de los Mozos, Angel Orbegozo y Begoña, Isabel Matxinandiarena, Rafa Altube, Pako Muñoa, Luis Mari Ralla, M. Carmen Vilar, Josetxo Olaziregi, Elisa Garallalde, José Ignacio Irigoien, Manuel Otaola, Fernando Rodríguez. El encargado ha sido Jon Serrano.

Todos esos documentos y otros muchos más, cedidos por altzatarras o encontrados en los archivos, deberían poder ser catalogados y guardados como es debido, pero nos resulta imposible por la escasez de medios que tenemos. A pesar de eso, este año hemos podido catalogar la importante cantidad de 1.226 documentos. Esto ha sido posible gracias a que hemos trabajo con documentos digitales, dejando en segundo plano el soporte físico.

Junto con la catolagación se ha dado un gran paso en el tema de la digitalización que en estos momentos anda cerca del 90%. Este tema es fundamental para avanzar cara a la divulgación. El año pasado se puso en marcha la página web www.altza.info con los fondos del Centro de Documentación con el fin de poder ofrecer para la consulta el mayor número posible de documentos.

La cantidad de documentos catalogados y digitalizados que

dauzkagun dokumentu kopuruak hauek dira:

| | |
|---|---|
| Artxibo-dokumentuak | 2.778 (2.438) |
| Aldizkariak | 254 (0) |
| Aldizkari-artikuluak | 1.072 (1.019) |
| Liburu-artikuluak | 82 (81) |
| Separata | 10 (9) |
| Argazkiak | 2.095 (2.095) |
| Diapositibak | 468 (460) |
| Bideoak | 40 (26) |
| Kasete/Audio | 49 (24) |
| Kartografia | 7 (7) |
| Planoak | 74 (7) |
| Prentsa | 645 (627) |
| DENETARA | 7.573 (6.793) |

**Kontsultak**
Kontsulta zerbitzua eskaintzen jarraitu dugu. Aurten 56 kontsulta artatu dugu, gai eta helburu ezberdinez.
Nabarmentzeko da honen segidan komentatuko dugun erakusketaren inguruan egindakoa, kontsulta bat bezala hasi zena elkarlan sakon batean bukatu zuen eta.

**"Bidebieta 2016" erakusketa**
Bidebietan bizi eta lan egiten duen Ibon Telleria arkitektoa AHM-renga jo zuen Bidebietari buruzko informazioaren bila. Arkitekto hau, Bidebietan bizi eta lan egiten du, eta Arkitektura Eskolako irakaslea. Bera "HIRIAK PENTSATU – ERREALA PROIEKTATU" egitasmoaren barruan "Bidebieta 2016" erakusketa prestatzen ari zen. Orain dela urte batzuk, 2003. urtean, Bidebietan antolatu genuen erakusketa baterako Maribel Manzano, Gorka Cámara eta Jon Serrano mintegikideek bildutako material ugaria, argazkiak eta planoak batez ere, berriro oso estimatuak izan ziren helburu berri honetarako. Horrez gain, eta egitasmo horrek zeukan ikuspegi filmikoa zela eta, antolatzaileek bideo bat grabatu zuten Jon Serrano eta Maribel Manzano irudi eta hitzekin, gero erakusketa zabalik egon zen bitartean ikusi eta entzun ahal izan zena.
Egitasmoa Donostia 2016 europako kultur hiriburudrako bulegoa, Cristina Enea Fundazioa eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Gipuzkoako ordezkaritzaren artean antolatutakoa zen eta erakusketa urriaren 29tik abenduaren 31ra, Cristina Enea Ingurumen Baliabideen Etxean ikusi ahal izan zen.

tenemos en este momento lo vemos en este cuadro:

| | |
|---|---|
| Documentos de archivo | 2.778 (2.438) |
| Revistas | 254 (0) |
| Artículos de revista | 1.072 (1.019) |
| Artículos de libro | 82 (81) |
| Separatas | 10 (9) |
| Fotografías | 2.095 (2.095) |
| Diapositivas | 468 (460) |
| Videos | 40 (26) |
| Casette/Audio | 49 (24) |
| Cartografía | 7 (7) |
| Planos | 74 (7) |
| Prensa | 645 (627) |
| TOTAL | 7.573 (6.793) |

**Consultas**
Hemos continuado ofreciendo el servicio de consulta. Este año hemos atendido 56 consultas sobre temas variados.
Cabe destacar una que empezó como una consulta y se convirtió en un trabajo de estercha colaboración en una exposición, y que comentamos a continuación.

**Exposición "Bidebieta 2026"**
El arquitecto Ibon Tellería, vecino de Bidebieta y donde tiene su estudio, y profesor de la escuela de Arquitectura, se dirigió a AHM en busca de información sobre Bidebieta para la exposición "Bidebieta 2016" que estaba preparando dentro del programa "PENSAR LA CIUDAD – PROYECTAR LO REAL" . En AHM teníamos una importante documentación, fotografías y plano principalmente, reunida en 2003 por Maribel Manzano, Gorca Cámara y Jon Serrano para una exposición que se realizó en Bidebieta, y que con motivo de esta nueva exposción han vuelto a ser de un gran valor. Además, como los autores del proyecto le querían dar un carácter fílmico a la exposición, grabaron un video con las palabras e imagen de Jon Serrano y Maribel Manzano, video que fue expuesto de forma continua mientras duró al exposición.
Este proyecto fue organizado por la oficina para la capitalidad cultural europea Donostia 2016, la Fundación Cristina Enea y la delegación guipuzcoana del Colegio de Arquitectos Vasco-navarro, y la exposición pudo ser visitada desde el 29 de octubre al 31 de diciembre en el Centro de Recursos Medioambientales de Cristina Enea.

## 1.3 Altzako Tokiko Bilduma

Altzako Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmena 2008ko abenduaren 31n bukatu zen. Hala ere, 2008ko azken hiruhilabetean alderdi teknikoaren eta lan egiteko prozeduraren arloetan Donostia Kultura eta AHMren artean emandako aurrerapen sendoak ikusita, hau da, hitzarmen berri bat sinatzeko aukera handiak ikusita, AHMk ordura arte bezala lanean jarraitu zuen, hitzarmen proposamen berriaren zain.

Otsailaren 16an Casares kultur etxeko arduradunak idatzi bat pasa zion AHMri non hitzarmenaren ardatzak jasotzen ziren. Idatzi horretan ez zen ageri aurreko arduradunari AHMk pasatako idatziaren aipamenik ezta lehengo eta oraingo arduradunari helarazitako hitzarmen zirriborroarena ere. Alegia, negoziazioaren azken fasean, arduradunak "abiapuntua", -haren hitzetan-, izan behar zuen proposamen bat aurkeztu zuen. Hala ere, AHMk idatzi berri bat pasa zion arduradunari berak aurkeztutako idatzian adostasunak eta desadostasunak zeintzuk ziren adieraziz. Bilera bat egin ondoren eta "linea gorriak" zeintzuk ziren garbi ikusi ondoren, AHMk martxoaren 25ean egindako Ohiko Batzarrean hitzarmenaren inguruko negoziazioa alferrikakoa jo eta eginkizun hori bertan behera uztea erabaki zuen.

Erabaki hori hartzeko arrazoiak honako hauek izan ziren:

Jabetza eskubide guztiak Donostia Kulturak berarentzat gorde nahi zituen. Era berean, Tokiko Bildumaren erabilpena, irudia, nondik norakoa, irizpideak eta abar ere berarentzat gorde nahi zituen.

## 1.3 Colección Local de Altza

El 31 de diciembre de 2008 finalizó el convenio de colaboración para la gestión de la Colección Local de Altza. A pesar de eso, y ante las buenas perspectivas de continuidad que existían por la superación de las posibles dificultades técnicas que dificultarían un acuerdo, AHM continuó trabajando en la línea seguida hasta ese momento y en espera de un nuevo acuerdo definitivo.

El 16 de febrero, Iñaki Gabarain, responsable de Casares, presentó un escrito con los "ejes" que debía regir el nuevo convenio. En dicho texto no había ni la más mínima referencia a las propuestas presentadas por AHM a este responsable y a su antecesor en el puesto. Es decir, que en la fase final de la negociación, cuando había que ir cerrando acuerdos, el responsable presenta un "punto de partida" para empezar a negociar. Inconcebible. A pesar de eso, AHM le pasó un escrito donde se señalaban los puntos de posible acuerdo y desacuerdo. Se hizo una reunión en la que el responsable mostró cuales eran las "líneas rojas" de su propuesta, inaceptables para AHM, y, en consecuencia el 25 de marzo, AHM, en su Asamblea General Ordinaria decidió poner punto final a varios años de negociaciones.

Las razones de la negativa a firmar fueron las siguientes:

Todos los derechos de propiedad eran exclusivos de Donostia Kultura. Así mismo Donostia Kultura se reserva la exclusividad en las cuestiones de uso e imagen, así como en las decisiones sobre el destino y los criterios de catalogación.
Con la firma del nuevo convenio pretendía que toda la actividad

Hitzarmen berriaren bitartez, AHMren jarduera osoa Tokiko Bildumaren baitan bildu eta berenganatzeko asmoa zuen. Ondorioz, AHMren jarduera eta giza baliabideak DK-ren zerbitzura geratuko lirateke eta, gainera, baliabide ekonomiko zein materialak oso eskasekin.

de AHM se incorporara al fondo de la Colección. Esto que a la postre supondría la supeditación total de toda la labor de AHM a DK, lo querían realizar con una dotación económica y material del todo insuficientes para el desarrollo de la actividad.

Maiatzaren 13an bilera bat izan zen kultur etxeko arduradunaren eta AHMren ordezkarien artean. Bilera horretara AHMk Tokiko Bilduma proiektua hitzarmenik gabe gauzatzeko elkarlana proposatu zuen. Arduradunak, bere aldetik, bi gauza eskatu zizkion AHMri: Tokiko Bildumaren memoria eta datu basea entregatzea, eta orain arte Casaresen erabili duen egoitza uztea.

El 13 de mayo se celebró una reunión con el responsable de Casares a la que AHM llevó la propuesta de colaborar en el desarrollo de la Colección Local sin convenio. El responsable, por su parte, pidió la entrega de la memoria del año 2008 y la base da datos de la Colección Local, y que AHM dejara de utilizar el local de la Colección Local.

Bilera berri batean AHMk 2008 urteko memoria, datu basea eta digitalizatutako dokumentuak eman zizkion, eta, bidenabar, bilerak egiten jarraitzea adostu zen, bi aldeentzako komenigarriak liratekeen elkarlan marko bat aurkitu arte. Bien bitartean, AHM Casareseko Tokiko Bildumaren egoitza erabiltzen jarraitu du.

En una nueva reunión AHM entregó la memoria de 2008 con la base de datos y documentos digitalizados, y se acordó continuar con las reuniones para buscar un marco de colaboración conveniente para ambas partes. Entre tanto, AHM ha seguido utilizando el local de la Colección Local en Casares.

Udan aldaketak izan ziren Donostia Kulturaren antolaketan, eragin zuzena izan zutena bileretan. Iñaki Gabarain Casareseko arduraduna izateari utzi zion eta Ernest Lluch-en ardura hartu zuen. Hala ere, AHM-ren gaia ixteko enkargua zeukan. Urrian AHMk bere proposamena aurkeztu dezala eskatu zuen.

Durante el verano se produjeron unos cambios en la dirección de Donostia Kultura que tuvieron su reflejo directo en las reuniones. Iñaki Gabarain deja Casares para pasar a ser responsable del Centro Ernest Lluch, pero sigue con el encargo de atar el tema de AHM. En octubre nos dice que presentemos nuestra propuesta.

Zuzendaritzan izandako aldaketaz jabeturik, eta horrek AHM-ren lanarekiko jarreran ere aldaketa ekar zezakeenez, orain dela bi urteko hitzarmen zirriborroa aurkeztu zen. Bertan klausula berri bat gehitu zen, jabetzari buruzkoa. Horren arabera, DK zen bildumaren jabea, baina AHMri baimena ematen zion horren erabilpena egiteko, baldintzapean. Hitzarmen proposamenarekin batera, 2010 urteari begira jarduera egitasmo bat aurkeztu zen, bileretan hitz egindakoaren ildotik.

Conscientes de que con el cambio en la dirección podíamos estar ante una nueva actitud para con el trabajo que desarrolla AHM, se presentó de nuevo el borrador de convenio de hace dos años, con una nueva cláusula que reconocía la propiedad de DK sobre la Colección Local, pero, a su vez, accedía a la utilización de la colección por parte de AHM, en determinadas condiciones. Junto a la propuesta de convenio, se presentó un plan de actividades para el año 2010, a partir lo hablado en las reuniones.

Urriaren 28ko bileran, DK-k AHM-ren proposamena onartu duela esan zigun Iñaki Gabarainek .

El 28 de octubre, Iñaki Gabarain nos comunica que la propuesta de AHM tenía el visto bueno de DK.

Jarraian, AHM-ren barruan bi bilera egin genituen gaia aztertzeko eta ondorioz hitzarmenaren sinatzea bertan behera uztea erabaki zen, etorkizunean zein baldintzetan gauzatuko den argitzen ez den bitartean behintzat. Urte askotan behin-behinekotasuna eta komunikazio eza izan dira nagusi eta, horregatik, behar-beharrezkoa ikusten dugu orain arte izan dugun baino goi maila altuago batean bilera bat egitea.

A continuación, en AHM tenemos dos reuniones al cabo de las cuales decide suspender la firma del convenio mientras no se aclare en qué condiciones de futuro se va a realizar. Son demasiados años de provisionalidad y mala comunicación, por lo que se hace imprescindible una reunión que lo aclara a un más alto nivel que la interlocución que hemos tenido hasta ahora.

Horrez gain, urtebete hitzarmenik gabe aritu ondoren, AHMk bere lana birmoldatu egin du, bere baliabidetara egokituz, kultur elkarte baten neurrian. Horregatik, aurkeztutako jarduera egitasmoa, azkarregi et arinki egina, bileren eraginez, iraganean jarraitutako lan ildora itzultzen zen, zerbitzu-enpresa baten estilotik hurbilago zegoena, eta ez duguna nahi berreskuratu.

Además, después de un año sin convenio, AHM ha reorientado su trabajo ajustándolo a sus posibilidades humanas y técnicas como asociación cultural, por lo que la propuesta de actividades presentada, a causa de la precipitación de los acontecimientos, retomaba una línea de trabajo, más cercana a una empresa de servicios en la que nos hemos movido en el pasado, y a la que no queremos volver.

Gauzak horrela, azaroaren amaieran AHMk bilera bat eskatu zion Patxi Presari, DK-ren Kultur Ekintzaren arduraduna, eta gaurko egunean, otsailaren 15a, oraindik ez du datarik, nahiz eta posta elektronikoz eta pertsonalki bilera hori egingo dela ziurtatu.

Así las cosas, a finales de noviembre AHM solicitó una reunión con Patxi Presa, responsable de Acción Cultural de DK, que a fecha de hoy, 15 de febrero aún no ha tenido lugar, a pesar de haber quedado en realizarla por email y de viva voz.

Une honetan, Casaresen jarraitzen dugu, hitzarmenik gabe, instalazioak erabiliz eta bilera hori noiz egingo den zehazteko zain, AHM eta DK-ren arteko elkarlan markoa zehazteko.

En estos momentos, seguimos en Casares, sin convenio, haciendo uso de las instalaciones, en espera de que se celebre la reunión y se concrete el marco de colaboración entre AHM y DK.

**1.4 Ganbara bilduma**

**1.4 Colección Ganbara**

**1. Antecedentes**

- La actividad de Ganbara se inicia reuniendo los primeros objetos allá en el año 1997, si bien puede decirse que tras dos años en los que no hay aportaciones, el proyecto comienza a tomar fuerza en el año 2000.
- Los objetos que forman parte de la colección están agrupados en dos categorías: los que responden a la finalidad de la misma, esto es, objetos antiguos de fabricación industrial y utilización doméstica o similar denominados “A”, y los que no responden a estas premisas denominados “B”. Dentro de esta segunda

**1. Aurrekariak**

- Ganbararen jarduera 1997. urtean hasi zen, aurreneko objektuak biltzen hasi ginenean. Bi urteetan, ordea, ez zen batere objekturik jaso eta, horrela, esan daiteke 2000. urtean bilduma berriro bizkortzen hasi zela.
- Bilduma osatzen duten objektuak bi multzotan sailkaturik daude: bildumaren helburuekin estuki loturik daudenak, hau da, industria jatorria daukaten eta etxeko erabilpena izan duten aspaldiko objektuak eta antzekoak “A” multzoan bildurik daude, eta helburu horrekin loturarik ez daukatenak “B” multzoan

calificación incluímos objetos que aunque su utilización sea igualmente doméstica o similar, su origen no es industrial, o bien que sean objetos recientes de interés. También se incluyen objetos repetidos o incompletos. Serían objetos de calificación "B" una acuarela, un kaiku o una romana sin pesa. Estos objetos suelen proceder de donaciones y no se exponen ni se tienen en cuenta al hacer público el inventario.

- La agrupación más reciente de los tipos de objetos, tanto "A" como "B" realizada en base a una clasificación didáctica de los mismos, es la que se realizó en el año 2007, y es la siguiente:

A. El fuego
B. Limpieza doméstica. Costura.
C. Utensilios de cocina. (Aparatos)
D. Menaje
E. Hogar
F. Confort doméstico
G. Aseo. Salud
H. Religión
I. Trabajo
J. Imagen y Sonido
K. Juegos
L. Electricidad, iluminación
M. Cerrajería, fontanería
N. Objetos personales
O. Estudios
P. Libros temáticos

- A 31 de Diciembre de 2009 se ha conseguido una colección de 301 objetos de calificación "A" y 15 de calificación "B".

**2. Actividad 2009**

**2.1 Actividades**

-Durante el año 2009 la colección se incrementó en 36 objetos de calificación "A", siendo 28 procedentes de donaciones particulares y 8 de adquisición de AHM. Así mismo hubo un incremento de 8 objetos de calificación "B".

Es de destacar la donación efectuada por la socia de AHM Estrelli de la Cruz que ha consistido en 8 objetos de gran valor etnográfico y la de la Sra. Elisa Garralda, Vda. De Francisco Lasa, quien ha hecho donación también de 8 objetos, destacando tres fotografías enmarcadas de la familia de los años 30. Ha habido también otros 8 donantes. El resto de los objetos son de adquisición por AHM.

-Además, dentro de los objetos de calificación "B" ha habido así mismo una donación notable: tres libros de cocina cedidos por Juan Mari Arzac.

-Se han continuado poniendo en la página WEB de AHM fichas de objetos dentro de lo que denominamos Ganbara virtual. Este año el progreso ha sido pequeño debido a que hemos estado más centrados en otro tipo de problemática de todos conocida. Aún así hemos aumentado las fichas en castellano de 97 a 113 permaneciendo las fichas en euskera en 65. Este proceso continúa a lo largo de 2010.

-En el año 2009 no hemos realizado exposiciones, dado que no ha habido solicitudes por parte de ninguna entidad.

**2.2 Local**

-No hemos conseguido ningún avance en este tema.

-Se va realizar en fechas próximas una gestión para tratar de conseguir un local municipal de 120 m2 en Herrera.

**2.3 Equipo**

-El actual equipo de Ganbara está constituído pos Angel Almeida, Kepa Amundarain, Javier Cantera, Miguel Angel Padrones y Jon Serrano que se ocupan de las tareas correspondientes a la adquisición de objetos, catalogación, realización de fichas y fotos, almacenaje, transporte y restauración y por Antxon Alfaro e Iñigo Landa que se ocupan de la euskerización de los textos y Ganbara virtual.

egongo dira. Bigarren multzo honetan sartu ditugu, adibidez, etxean erabilitako objektuak, baina jatorri industriala ez dutenak, eta baita berriagoak direnak ere, interesgarriak iruditu bazaizkigu. Era berean, badaude beste objektu batzuk errepikatuak edo osatugabe daudenak. Adibide gisa, akuarela bat, kaiku bat edo pisurik gabeko balantza bat, hauek "B" multzo horretan sartuko genituzke. Objektu hauek guztiak jendeak emandakoak izaten dira eta kanpora begira egindako inbentarioan ez dira kontuan hartzen.

- Objektu mota ezberdinen azken antolaketa, "A" multzokoak zein "B"-koak, objektuak modu didaktikoenean erakusteko asmoz egina, 2007. urtean egindakoa da, eta honako hau da:

A. Sua
B. Etxeko garbiketa. Josketa
C. Sukaldeko tresnak. (Aparatuak)
D. Etxeko hornidura
E. Etxea
F. Etxeko konforta
G. Norberaren garbitasuna, osasuna
H. Erlijioa
I. Lana
J. Ikus-entzunezkoak
K. Jolasak
L. Argiztapena, instalazio elektrikoa
M. Sarrailak, iturgintza, bestelako elementuak
N. Objektu pertsonalak
O. Lan-intelektuala, ikasketak
P. Gaikako liburuak

- 2009ko abenduaren 31n bilduman "A" multzoko 301 objektu daude eta 15 "B" multzokoak.

**2. 2009. urteko ekitaldia**

**2.1 Jarduerak**

- 2009 urtean zehar 36 objektu berriekin handitu da "A" motako multzoa, horietako 28 emaile partikularrek emandakoak eta beste 8 AHM-k erosiak. Era berean, 8 objektu berri sartu dira "B" motako multzoan.

Aipagarria da Estrelli de la Cruz AHM-ko bazkideak emandako sorta, horietako 8 balio etnografiko handikoak. Francisco Lasaren alarguna den Elisa Garraldak ere 8 objektu eman ditu bildumarako, horien artean 1930 hamarkadako hiru argazki markodun handiak. Horiez gain, beste zortzi emaile gehiago egon dira. Gainontzeko objektuak AHM-k erosiak dira.

-Gainera, "B" multzoaren barnean dauden objektuen artean, Juan Mari Arzak emandako hiru sukalde-liburuak nabarmendu behar dira.

- Web orrian jarraitu dugu objektuen fitxak zintzilikatzen, Ganbara birtuala deitzen dugun horren barruan. Aurten egindako aurrerapena txikia izan da, denok ezagutzen dugun gaietan buru-belarri ibili behar izan dugulako. Hala ere, gaztelaniaz idatzitako fitxa kopurua 97-tik 113-ra handitu da eta euskarazkoak lehen zeuden 65 fitxatan geratu dira. 2010. urtean zehar lan horrekin jarraitzeko asmoa dugu.

- 2009. urtean ez dugu erakusketarik prestatu, ez baita erakunderik egon horretarako eskaerarik egin duenik.

**2.2 Egoitza**

- Arlo honetan ez dugu inolako aurrerapenik izan.

- Epe laburrean bilera bat izango dugu udal ordezkariekin Herrerako 120 m2-ko lokal bat eskuratzeko.

**2.3 Taldea**

-Ganbara taldea gaur egun honela osaturik dago: Angel Almeida, Kepa Amundarain, Javier Cantera, Miguel Angel Padrones eta Jon Serrano. Hauen gainean dago objektuak biltzea, katalogatzea, fitxak betetzea, argazkiak egitea, gordetzea eta zaintzea, garraiatzea eta eraberritzea. Antxon Alfaro eta Pili Agirre, Ganbara birtualez eta testuen euskaratzeaz arduratu dira, hurrenez hurren.

**1.5 Ibilaldiak**

Urtarrilaren 25ean Club Vasco de Camping elkarteak antolatutako "Donostiako Bira"-ren barruan eta Altzako barrutitik zeharkatzen duen zatian lagundu genien. Ibilaldia hau izan zen: Martutene – Gartziategi – Ubarburu – Putuzeta – San Marko – Txipres – Santa Barbara – Herrera. Jende asko hartu zuen parte eta bidean zehar azalpenak eskaintzeaz gain

**1.5 Excursiones**

El 25 de enero colaboramos con el Club Vasco de Camping en el tramo altzatarra de "La vuelta a San Sebastián", en concreto, el recorrido realizado fue el siguiente: Martutene – Gartziategi – Ubarburu – Putuzeta – San Marko – Txipres – Santa Barbara – Herrera. Además de ofrecer algunas explicaciones sobre la marcha se repartió también información escrita sobre el

informazio idatzia ere zabaldu zen.
Urtarrilaren 31n txango bat antolatu genuen Nafarroako eta Arabako ondoko leku interesgarri hauek ezagutzeko asmoz: Monjardin gaztelua (Villamayor de Monjardin); Kodeseko santutegia; San Jorge monastegia (Azuelo); Punicastro; Labraza.
Talde polit bat osatu genuen eta dena nahi bezala egin ahal izan genuen.
Altzako hainbat txoko eta inguruko beste batzuk ezagutzeko asmoz, eta 55+ egitarauaren barruan, ondoko ibilaldi hauek antolatu dira:
Apirilak 23: Lau Haizeta parkea (Araztegiaren inguruan)
Maiatzak 7: LUBERRI (Oiartzungo Geologi Interpretazio Zentroa)
Maiatzak 21: Altzako baserriak (Martutene aldean)
Ekainak 4: Jaizubiako padurak (Irun - Hondarribia)
Ekainak 25: Pasaiako badia (ALBAOLA ontziola tradizionala)
Uztailak 9: Altzako baserriak (Intxaurrondo aldean)

recorrido.
El 31 de enero organizamos una excursión por tierras navarras y alavesas para visitar los siguientes puntos de interés: Castillo de Monjardín (Villamayor de Monjardín); Santuario de Codés; Monasterio de San Jorge (Azuelo); Punicastro; Labraza.
La excursión fue muy concurrida y se cumplió con el programa previsto.
Dentro de las actividades para 55+ hemos preparado los siguientes paseos cuya finalidad es conocer algunos rincones de Altza y lugares cercanos a ella:
23 de abril: Parque de Lau Haizeta. (zona de la Depuradora)
7 de mayo: LUBERRI (Centro de Interpretación Geológica de Oiartzun)
21 de mayo: Caseríos de Altza (zona de Martutene)
4 de junio: Marismas de Jaizubia (Irún - Hondarribia)
25 de junio: Bahía de Pasajes (visita al astillero tradicional ALBAOLA)
9 de julio: Caseríos de Altza, zona de Intxaurrondo.

**1.6 Ikerketa**

Joan den urtean AHM-k ikerketarako beka eskaini du, bederatzigarrena izango dena. Bekaren helburu nagusia Altzari buruzko gaien inguruan ikerketa monografiko sakonak sustatzea da.
Oraingoan Marko Sierra izan da aukeratua lan hori burutzeko eta jorratuko duen gaia "Altzaren inguru naturala" izango da.
Altzak inguru natural anitza dauka, mendia, baserri ingurua, hiritarra, parkeak, itsas-bazterra… eta aldaketa handiak izan ditu azken hamarkadetan. Errealitate hau ezagutzea eta ezaguaraztea izan proposamen hau aukeratzeko arrazoia nagusia.
Marko Sierra Nekazaritza Injinerua da, Aranzadi Zientzia Elkartean, Club Vasco de Camping elkartean eta Haritzalde Naturzaleen elkartean aritutakoa.
Egingo duen lanak ondoko eskema hau jarraituko du: 1. Sarrera; 2. Ezaugarri klimatikoak; 3. Geologia eta geomorfologia; 4. Landaretza eta fauna. (Eboluzioa, Altzadiak, Baso naturalak, hariztiak, baso mixtoa, pagadia, belardiak eta laboreak, landa mundua).
Landaretza mapa nagusia izanda eta ikus daitezkeen animalien zerrenda jarriz, habitat nagusien kokapena adieraziko du irudien bidez, hábitat bakoitzeko mapa-irudia, hábitat bakoitzeko marrazkia-irudia eta animali batzuen fitxak.
Informazio hau guztia web orri batean sartzeko modu errazean prestatuko du.
Ikerketa 2009ko urritik 2010 urteko martxora arte luzatuko da eta izango duen dotazio ekonomikoa 1.350 eurokoa izango da.

**1.6 Investigación**

En 2009 AHM ha ofrecido la que será la novena edición de la beca. El objetivo de la beca es dotar a los altzatarras de estudios monográficos sobre Altza.
En esta ocasión la propuesta elegida ha sido la presentada por Marco Sierra sobre "El entorno natural altzatarra".
Altza cuenta con un variado panorama de hábitats: monte, rural, urbano (calles y parques), y costero, hábitats que están teniendo importantes transformaciones y cambios en estos tiempos. Conocer esta realidad, en algunos aspectos tan poco conocida, y divulgarla ha sido la principal razón que ha animado su elección.
Marko Sierra es Ingeniero Agrónomo y participa de forma activa en asociaciones como la Sociedad de Ciencias Aranzadi, el Club Vasco de Camping y en la asociación Haritzalde Narturzaleak.
El trabajo que va a desarrollar seguirá el esquema siguiente: 1. Introducción; 2. Características climáticas; 3. Geología y geomorfología; 4. Vegetación y fauna (Evolución, bosques naturales, el robledal y el bosque mixto de frondosas, el bosque en galería, el hayedo, prados y cultivos, la campiña).
A partir del mapa de vegetación y de la fauna que se puede observar, se ubicarán de una forma gráfica los principales hábitats de Altza, con un mapa de cada hábitat específico, un cuadro gráfico de cada hábitat y las fichas correspondientes de algunos animales.
Todas esta información se presentará de una forma clara y concisa, para incorporarla fácilmente a una página web.
El trabajo se realizará entre octubre de 2009 y marzo de 2010, y tendrá una dotación económica de 1.350 euros.

**1.7 Lekukoak Proiektua**

Proiektu honek Altzako memoria historikoa berreskuratu, gorde eta ezagutarazteko helburua dauka. Horretarako, Altza XX. mendean bizi dituen prozesu sozialen lekukoen testigantzak biltzen ari gara, ikus-entzunezko euskarritan.
Joan den urtean zehar bideoz 2 elkarrizketa grabatu ziren. Beste 3 elkarrizketa adostu dira, baina oraingoz, arrazoi desberdinengatik, ez dira grabatu.
Halaber, 50. hamarkadan Altzan emandako migrazio prozesuei buruzko dokumentalaren prestakuntzarekin jarraitu da.
Bukatzeko, aurreko mendeko azken hamarkadan Altzan grabatutako ikus-entzunezko dokumentu batzuk berreskuratu eta digitalizatu dira.

**1.7 Proyecto Lekukoak/Testigos**

Este proyecto pretende contribuir a la recuperación, preservación y difusión de la memoria histórica de Altza a través de los testimonios audiovisuales de las personas testigos de los diferentes procesos sociales que se han producido en nuestra comunidad a lo largo del siglo XX.
Durante el pasado año 2009 se grabaron 2 entrevistas. También se han concertado otras 3 entrevistas, pero por diferentes motivos todavía no se ha realizado la grabación.
Así mismo, se ha seguido trabajando sobre la realización del un documental sobre los procesos de migración que se dieron en Altza en los años 50.
Por último, se han recuperado y digitalizado documentos audiovisuales que recogen la vida de Altza durante la última década del siglo pasado.

**1.8 Altza, Hautsa Kenduz**

Abenduan "Altza, Hautsa Kenduz" bildumaren hamargarren zenbakia aurkeztu genuen. Aurkezpenera jende asko etorri zen, aretoa lepo zegoen (140 leku). Denetara 17 artikulu, 292 orrialde eta 600 ale argitaratu dira.
Argitaratutako artikuluak eta egileak hauek dira:
1. Andoni Kortajarena, "Euskeraren gudaria" / Jose Antonio

**1.8 Altza, Hautsa Kenduz**

El 18 de diciembre fue presentado el número 10 de "Altza, Hautsa Kenduz. El acto contó con una gran asistencia de público que llenó el salón de actos (140 asistentes)
En total el nuevo número cuenta con 17 artículos en 292 páginas, y cuenta con una tirada de 600 ejemplares.
Los artículos y autores son los siguientes:

KORTAJARENA SARASTI
2. "Itani", Herrerako kronista / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
3. Dos documentos de finales del XVI sobre robles en Altza / Fermín MUÑOZ ECHABEGUREN
4. Argumentos y documentos frente al intento de imposición de Pasaia / Iñigo LANDA
5. Un Hospital Antoniano en el Alto de San Antón (Huércanos, La Rioja) / Pilar PASCUAL MAYORAL, Pedro GARCÍA RUIZ
6. Florencio Mocoroa Gastesi. Arquitectura racionalista en Altza / Gorka CÁMARA CANELLADA
7. Iraunkortasun irizpideekin birgaitzeko jarduera metodologia - Metodología de actuación para la rehabilitación con criterios de sostenibilidad / Andrea VALORIA GARCÍA, Jone MINER AGINAGA, Erik LABAYEN EIZAGIRRE, Olatz IRULEGI GARMENDIA
8. Oficinas de Luzuriaga: memoria, estética e infraestructura / ANTXOTARROK HISTORIA MINTEGIA
9. Molinaorik ez balitz / Koldo IZAGIRRE
10. Larratxo Blues / Iñaki MARTIARENA "MATTIN"
11. Poema honek, baina, ba ote du audientziarik...? / Joan Mari IRIGOIEN
12. Altzako I. Bertsopaper lehiaketa / BIZARRAIN KULTUR ELKARTEA
13. Ezkaurre / JOXERRA
14. Galegos e bascos na sociedade Bertsolari Txirrita. / Filipe DOMÍNGUEZ AVILÉS
15. Jose Mari geurea / EUSKAL GIROA
16. Altzako bolatokiak eta bolariak / HERRERA K.E., EUSKAL GIROA
17. Eskoletako taldeak - Álbum fotográfico escolar / Jon SERRANO

Aurreko bederatzi aleetan bezala, azala Joaquin Garridok egin du.

Liburuarekin batera Pako Sagarzazu herreratarrak protagonizatutako “Pa ti pa siempre” izenburuko laburmetraia aurkeztu genuen.

Horrez gain 2010 urteko egutegia ere aurkeztu genuen eta Ixabel Matxinandiarena bazkide hilberriari omenaldi bat eskaini genion haren bideo labur bat ikusiz.

1. Andoni Kortajarena, "Euskeraren gudaria" / Jose Antonio KORTAJARENA SARASTI
2. "Itani", Herrerako kronista / ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA
3. Dos documentos de finales del XVI sobre robles en Altza / Fermín MUÑOZ ECHABEGUREN
4. Argumentos y documentos frente al intento de imposición de Pasaia / Iñigo LANDA
5. Un Hospital Antoniano en el Alto de San Antón (Huércanos, La Rioja) / Pilar PASCUAL MAYORAL, Pedro GARCÍA RUIZ
6. Florencio Mocoroa Gastesi. Arquitectura racionalista en Altza / Gorka CÁMARA CANELLADA
7. Iraunkortasun irizpideekin birgaitzeko jarduera metodologia - Metodología de actuación para la rehabilitación con criterios de sostenibilidad / Andrea VALORIA GARCÍA, Jone MINER AGINAGA, Erik LABAYEN EIZAGIRRE, Olatz IRULEGI GARMENDIA
8. Oficinas de Luzuriaga: memoria, estética e infraestructura / ANTXOTARROK HISTORIA MINTEGIA
9. Molinaorik ez balitz / Koldo IZAGIRRE
10. Larratxo Blues / Iñaki MARTIARENA "MATTIN"
11. Poema honek, baina, ba ote du audientziarik...? / Joan Mari IRIGOIEN
12. Altzako I. Bertsopaper lehiaketa / BIZARRAIN KULTUR ELKARTEA
13. Ezkaurre / JOXERRA
14. Galegos e bascos na sociedade Bertsolari Txirrita. / Filipe DOMÍNGUEZ AVILÉS
15. Jose Mari geurea / EUSKAL GIROA
16. Altzako bolatokiak eta bolariak / HERRERA K.E., EUSKAL GIROA
17. Eskoletako taldeak - Álbum fotográfico escolar / Jon SERRANO

Como en los nueve números anteriores, Joaquín Garrido ha sido el autor de la portada.

En el acto se visionó el cortometraje protagonizado por el herreratarra Paco Sagarzazu, titulado “Pa ti pa siempre”.

Así mismo, se presentó el calendario del año 2010 y se hizo un sencillo homenaje a Ixabel Matxinandiarena, socia de AHM fallecida recientemente, y que pudimos ver y escuchar en una grabación echa para Lekukoak.

**1.9 Estibaus buletina**

Buletinaren blogean (www.estibaus.info) 48 sarrera argitaratu ditugu, astean behin, ia. Honela sailkatuak: Notiziak 12, Iritziak 9, Kronikak egungoak 6, Kronika zaharrak 5, In memoriam 4, Txangoak 3, Fototeka 3, Ganbara 2, Bertsoak 2, Ikerketa 1, Internet 1.

Sarrerak sortzen aritu direnak hauek dira: Elena Arrieta, Antxon Alfaro, Angel Calvo, Javier Cantera, Jon Serrano, Luis Mari Ralla, Maribel Manzano eta Iñigo Landa.

Blogaren sarrerak 88 harpidedunei bidaltzen zaizkie posta elektronikoz eta baita Altzanet posta zerrendaren bitartez banatzen da.

Altzanet web orriaren bitartez Estibauseko azken sarrerara lotura zuzena eskaintzen da.

Youtuben kontu bat ireki dugu Estibausen argitaratzen diren bideoak zintzilikatzeko.

Aurten paperezko bi zenbaki argitaratu ditugu, 43 eta 44 zenbakiak, neguan eta udaberrian blogean idatzitako artikuluekin. Formatua azken bi urteetan erabili dugun bera da, A5 tamaina alegia, eta bietatik 300 ale egin ditugu.

Paperezko argitaratzeari utzi behar izan diogu denbora faltagatik.

**1.9 Boletín Estibaus**

En el blog del boletín (www.estibaus.info) se han publicado 48 entradas, a una por semana, poco más o menos: Noticias 12, Opiniones 9, Crónicas actuales 6, Crónicas antiguas 5, In memoriam 4, Excursiones 3, Fototeca 3, Ganbara 2, Bertsoak 2, Investigación 1, Internet 1.

Los autores de las entradas han sido: Elena Arrieta, Antxon Alfaro, Angel Calvo, Javier Cantera, Jon Serrano, Luis Mari Ralla, Maribel Manzano e Iñigo Landa.

Con cada una de las entradas se envía un mensaje a 88 subscripciones y a la lista de correo Altzanet.

En la página web de Altzanet se ofrece un enlace directo a la última entrada.

Se ha abierto una cuenta en Youtube para ir colgando los videos que se pulican en Estibaus.

Este año se han publicado dos números de Estibaus en papel, el 43 y 44, con las entradas publicadas en el blog “invierno” y “primavera”. El formato ha sido el mismo que se ha utilizado estos dos últimos años, en A5, y se han tirado 200 ejemplares.

Ha habido que dejar de publicar Estibaus en papel por no poder dedicarle el tiempo que necesita.

**1.10 Egutegia**

Aurten ere 2010eko egutegia argitaratu dugu. Oraingoan ere argazki zaharrekin osatu dugu, 2009 urtean zehar bildutakoekin. Egutegia “Altza, Hautsa Kenduz” liburu berriarekin batera banatu zen. Egutegi handiaren 1.000 ale argitaratu dira, eta txikiaren beste 1.500. Banaketa liburuaren aurkezpen egunean egin zen eta, aurreko urteetan bezala, Altzako Olentzerotan, dendetan eta kultur etxeetan ere banatu ziren.

Laguntzaileak hauek izan dira: Zyma grafikagintza, Berpiztu Elkartea, Altzan Bizi Herri Ekimena, Auzoa merkatarien

**1.10 Calendario**

Como en años anteriores, este año también hemos publicado el calendario para el nuevo año 2010, a partir de las fotos antiguas reunidas a lo largo de 2009. El calendario lo presentamos junto al nuevo libro de “Altza, Hautsa Kenduz”. La tirada ha sido de 1.000 ejemplares y de 1.500 los pequeños. Se repartieron en la presentación y, como en años anteriores, en los olentzeros de Altza, en las tiendas y casas de cultura.

Los patrocinadores han sido: Gráficas Zyma, Berpiztu Elkartea, Altzan Bizi Herri Ekimena, Asociación de comerciantes Auzoa,

elkartea, Nido eta Zumardi tabernak.
Egutegiaz arduratu direnak Jon Serrano eta Pili Lázaro izan dira.

y los bares Nido y Zumardi.
De la realización del calendario se han encargado Jon Serrano y Pili Lázaro.

**1.11 Elkartearen bizitza eta harremanak**

Urtean zehar pertsona askorekin izan ditugu harremanak eta haien bitartez hainbat informazio eta dokumentu trukatu ditugu. Harremanak jardueretan islaturik agertzen dira (fototeka, argitalpenak, ibilaldiak…). Horiei Gorga Añorgako Historia Mintegia gehitu behar zaie.

**Bazkide berriak**
Batzarrean eskabide hauek aurkeztuko dira Elkartean sartzeko:

220 APOLINAR VEGA FELIPE
221 JOSE IGNACIO IRIGOIEN URBIETA
222 PATXI LAZCANO SORZABAL

Era berean Urteko Batzar Nagusira begira bazkide baten baja aurreikusten da:

157 M. JUNCAL GARCIA PEÑIL
213 ISABEL MATXINANDIARENA ZUBELDIA (+)
193 OSCAR SOLA BUENO (+)
158 M. BEGOÑA ZURUTUZA SARRIUGARTE

**1.11 Vida de la asociación y relaciones**

A lo largo del año hemos colaborado con muchas personas y entidades con las que hemos intercambiado documentación e información, relaciones que aparecen reflejadas en la memoria de las actividades (fototeca, publicaciones, excursiones…) y a las que hay que añadir las mantenidas con Gorga Añorgako Historia Mintegia.

**Nuevos socios y socias**
Se presentan a la Asamblea las siguientes solicitudes para su admisión:

220 APOLINAR VEGA FELIPE
221 JOSE IGNACIO IRIGOIEN URBIETA
222 PATXI LAZCANO SORZABAL

Así mismo se plantea la baja de:

157 M. JUNCAL GARCIA PEÑIL
213 ISABEL MATXINANDIARENA ZUBELDIA (+)
193 OSCAR SOLA BUENO (+)
158 M. BEGOÑA ZURUTUZA SARRIUGARTE

Idazkariak aurkeztutako 2009. urteko memoria aho batez onartzen da.

*Se aprueba por unanimidad la memoria del año 2009 presentada por el secretario.*

**3. 2009. urteko kontuen onarpena**

***3. Aprobación de las cuentas del año 2009.***

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2008/12/31) | 16.123,30 | |
| Bazkide kuotak | 1.650,00 | 39,50 |
| Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza) | 601,00 | |
| Euskara Patronatua (Dirulaguntza) | 358,08 | |
| Orona | 142,14 | |
| Interesak | 1,31 | |
| Dokumentazio Zentroa | | 2.282,55 |
| Estibaus Buletina | 300,00 | 436,59 |
| Argitalpenak | | 1.346,80 |
| Ganbara Bilduma | | 1.253,24 |
| Altzanet-Lekukoak | 1.667,18 | 3.087,01 |
| Egutegia | 450,00 | 587,25 |
| Txangoak | | 44,82 |
| “Altza ezagutuz” Programa | 360,00 | 360,00 |
| Elkartearen bizitza eta harremanak | | 506,92 |
| **GUZTIRA . . .** | **21.653,01** | **9.944,68** |

***SALDOA (2009/12/31): 11.708,33 €***

| | |
|---|---|
| **KUTXA Donostia Gipuzkoa** | **10.845,85** |
| **EUSKADIKO KUTXA** | **862,48** |

Altza, 2010eko martxoaren 4a.

Diruzainak aurkeztutako 2009. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2009 presentado por el Tesorero.*

| **4. 2010. urterako egitasmoa** | ***4. Plan de actividades para el año 2010.*** |
|---|---|
| Iazko lan-eskemarekin jarraitzea erabaki zen.<br>Horrez gain, 2011 urtean AHMk 25 urte beteko dituenez, aurten ospakizun horretarako egitasmo berezi bat prestatzea erabakitzen da. Egitasmo berezi horretan honelako jarduerak egon daitezke:<br>- web orria berritzea<br>- argitalpen bat (argazkiak…)<br>- logoa berritzea<br>- Tokiko Historiari buruzko topaketak<br>- Musika saioak<br>- Bazkaria<br>- …<br>Jardueren oihartzuna handiagoa izan dadin horiek guztiak egun batzuen inguruan biltzea planteatzen da.<br>Gai honen garrantziaz ikusita, epe laburrean (apirilean edo maiatzean) beste bilara bat egitea edukietan sakontzeko. | *Se decidió continuar con las líneas de trabajo del año anterior.*<br>*Además, y teniendo en cuenta que el año 2011 AHM va a cumplir sus bodas de plata, se plantea el preparar un programa de actividades especial para la ocasión con actividades de este tipo:*<br>- *renovación de la página web*<br>- *una publicación (fotos…)*<br>- *nuevo logo*<br>- *Encuentro de Grupos de Historia Local*<br>- *Música*<br>- *Comida*<br>- *…*<br>*Para que las actividades tengan la mayor repercusión posible, se propone concentrar su desarrollo en unas fechas concretas.*<br>*Y vista la importantcia que este tema tiene, se propone asímismo el realizar una reunión monográfica próximamente.* |

| **5. Bazkide berrien onarpena** | ***5. Admisión de nuevos socios y socias*** |
|---|---|
| Batzarrean ondoko eskabide hauek aurkeztuko dira Elkartean sartzeko:<br><br>220 APOLINAR VEGA FELIPE<br>221 JOSE IGNACIO IRIGOIEN URBIETA<br>222 PATXI LAZCANO SORZABAL<br><br>Aho batez onartzen dira.<br>Era berean Batzar Nagusian bazkide hauen baja ikusten da:<br><br>157 M. JUNCAL GARCIA PEÑIL<br>213 ISABEL MATXINANDIARENA ZUBELDIA (+)<br>193 OSCAR SOLA BUENO (+)<br>158 M. BEGOÑA ZURUTUZA SARRIUGARTE<br>151 PILAR ECHENIQUE ARZAC<br>135 IÑAKI ZARRANZ GARCÍA<br><br>Horrela, une honetan Altzako Historia Mintegia 190 bazkidez osaturik dago. | *Se presentan a la Asamblea las siguientes solicitudes de entrada en la Asociación:*<br><br>220 APOLINAR VEGA FELIPE<br>221 JOSE IGNACIO IRIGOIEN URBIETA<br>222 PATXI LAZCANO SORZABAL<br><br>*Se aceptan po unanimidad.*<br>*Así mismo, en la Asamblea General se ven las siguientes bajas:*<br><br>157 M. JUNCAL GARCIA PEÑIL<br>213 ISABEL MATXINANDIARENA ZUBELDIA (+)<br>193 OSCAR SOLA BUENO (+)<br>158 M. BEGOÑA ZURUTUZA SARRIUGARTE<br>151 PILAR ECHENIQUE ARZAC<br>135 IÑAKI ZARRANZ GARCÍA<br><br>*A fecha de hoy Altzako Historia Mintegia está conformada por 190 socios y socias.* |

| **6. Bestelakoak** | ***6.Ruegos y preguntas*** |
|---|---|
| Besterik gabe batzarra amaitutzat eman zen. | *Sin otro particular la asamblea general se dio por terminada.* |

| Idazkaria | *Lehendakaria* |
|---|---|
| Iñigo Landa | *Jon Serrano* |